

Alaves ♦ Oraindik «bide luzea» gelditzen zaiela ohartarazi du Antonio Karmona kapitainak

Ibon Begoña, hautsita

Astebete eta gero, peronea hautsirik duela ikusi dute medikuek

Ivan Santamaria / Gasteiz

EZUSTE garratza hartu zuen atzo Ibon Begoñak. Valencia-ko partiduen ondoren astebete min hartuta igaro eta gero, Alaveseko sendagileek bere arazoan iturria topatu dute azkenean: peronea hautsita du atzelariak.

Egoera ez zen batere normala. Hiru azterketa egin zituzten medikuek, baina ez zuten inolako hausturarik ikusi. Hala ere, hobera egin beharrean, txarrera egiten zuen Begoñaren zangoak, eta asteburuan minak gogor erasan jo zion. Alaveseko medikuek erantzun azkarra bilatu dute egoera azaltzeko. Izan ere, haustura ez da asteburu arte ireki, eta orduan nabaritu du Ibon Begoñak mina.

Gutxienez bi hilabete behar izango ditu bizkaitarrak berriro jokatzeko. Orain lau astez igeltsua eramango du,



JOSEBA OLALDE

Ibon Begoñak gutxienez bi hilabeterako dauka.

eta ondoren entrenatzen hasiko da, erritmo apalean. Berri txarra jaso arren, lasaitua ere hartu zuen Ibon Begoñak, harrigarria baitzen berarentzat lesio larririk gabe halako mina sentitzea.

Karmona: «Zeresana emango dugu»

Pozik daude Alaveseko jokalariek. Ez da harritzekoa, Liga hasiera bikaina egin baitute.

Hala ere, Barcelonaren kontrako garaipenaren ondotik lasaitasunerako deiak dira nagusi. Iritzi horretakoa da Antonio Karmona. Kapitainak ez du gehiegizko euforia ikusi nahi Alaveseko ingurunean, eta helmuga mailari eustea dela berretsi du. «Gure helburua 45 puntu lortzea da, eta horretarako beste 12 garaipen behar ditugu. Hortaz, bide luzea geratzen da oraindik», adierazi zuen. Bere hitzak indartzeko iazko adibide bat erabili zuen Karmonak: «Villarreak lehen itzuli ederra egin zuen iazko denboraldian, Camp Nou ere irabaziz. Baina, azkenean, Bigarren Mailara jaitsi zen».

Dena den, eginiko lana goratu egin zuen zentralak. «Oso lan ona egin dugu. Hala jarraitzen badugu, zeresan ugari emago dugu».

Txikizioak egon dira berriro Mendizorrotzan

Ezezagun batzuk Alaveseko zelaira sartu ziren igande gauean, eta zenbait gauza suntsitu. Arazo larrienak zelaia pairatu ditu, baina baita eserlekuek, atek eta publizitateak ere. Ez da txikizioak izan diren lehen aldia, eta Alavesek obrak amaitzen diren bitartean gauzez zaintza jartzea galdegin dio Gasteizko Udalarari.

Historiako hasierarik onena egin du Alavesek

Inoizko Liga hasierarik biribilena egin du Alavesek lehenbiziko lau partiduetan. 1930/31 eta 98/99 denboraldietan bi garaipen eta berdinketa bat erdietsi zituen lehen lau partiduetan. Aurten, berriz, hiru garaipen eta porrot bakarra.

Gaur itzuliko da taldea entrenamenduetara

Goizeko 10:30etan ekingo die berriro Alavesek entrenamenduei. Atzo atsedena izan zuten futbolariak, igande goizean ezohiko saio bat egin eta gero.

harmailetatik begira

Handiak txikiago

Enekoitz Esnaola

ORAINDIK ere goiz da ondorio nagusi batzuk ateratzeko, bestela zer, Rayo txapeldun? Edo bestela Alaves?... Ez dago dudarik, ordea, aldatzen ari dela futbola.

Ez du garai bateko magia-rik. Izan ere, gaur egun partidu guztiak botatzen dituzte telebistaz, eta horrek kendu egiten dio magia hura. Lehen, asteburuan telebistaz partidu bakarra eskaintzen zuten garaian, neure herrian zine-aretoan jakiten genuen nola zihoazen igandeko partiduak, filmearen atsedenean arbel handi batean jartzen zituztelako momentuko emaitzak, eta filmearen bukaeran jakiten genuen partidu bakoitza nola bukatu zen. Tabernetan banatzen zituzten *goleadak* ere estimatzen genituen, batez ere sailkapenak nola geratu ziren ikusteko. Eta gaur *estudio estadio*

bakarra eta kitto, hango kartzetarien iritziak baino ez genituen entzuten. Orduan ere baziren talde apalak edo txikiak: Elche, Malaga, Burgos... Eta orduan ere baziren talde boteretsuak edo handiak: batik bat Barcelona eta Real Madrid. Eta gure ustez ikaragarria zen txikiak eta handien arteko tartea. Hain gutxitan ikusten genituen talde handiak, ezen haiekiko miresmena eta lilura gaur egun baino handiagoa zen, eta garaitezinak ziruditen. Eta deskuidoan zure taldeak haietako bati partidua irabazten bazion, zoramena izaten zen; Realak eta Athleticen elkarren segidan bina titulatu (!) irabazi zituztenean izan zen bezalaxe.

Gaur egun, aldiz, talde handiek ez dirudite garaitezinak, azkenean haiek irabazten badute ere Ligako titulu-

lua. Hainbestetan ikusten ditugu haiek jokatzeko, ezen ez dutela ematen hain ekipoa onak. Lehen, *estudio estadio* bakan haietan, jardunaldiko jokalaririk onenak eta golak baino ez genituen ikusten, eta ekipa handietako jokalariek horretan maisuak direnez —kalitate handia izan badutelako—, haietazko ziren laudoriorik biribilenak. Gaur egun, partiduen zuzeneko erretransmisio ugarietan, izarren akatsak eta hutsegiteak ere ikusten ditugu, eta asko egiten dituztela ikusten dugu gainera. Eta orduan ohartzen gara ez direla hain-hain onak ere, ez direla beste munduko jokalariek, mendean hartzeko modukoak direla, eta horregatik ez dute haien kontrako garaipenak garai bateko magia hura. Hori bai: Alavesi, hala ere, ez diot meriturik kentzen.



TONI GARRIGA / EFE

Luis Enrique, Barcelonako jokalaria, lurrean partidu batean.

Normala da jendea urduri jartzea Albertorekin

Atezainak errespetua sortu behar die area txikian kontrarioei, eta Albertok ez die sortzen. Adibide bat: igandean Tristane banako golean lasai-lasai errematu zuenean buruz, defentsarena izan zen akatsa, baina hark bazekien Alberto irtengo balitz ere ez ziola ukabilez muturrekorik emango. Bestelako irteeretan ere nabarmen egiten du huts. Adibide bat: lehen zatian Albertok ederki gelditu zuen Carlosen jaurtiketa, baina Alberto pasera behar bezala irten ez zelako iritsi zen Mallorcaren gol aukera. *Enfin* (I)...

Gehiegi emozionatu dira Rayokoak

«Vigon irabazten badugu, denboraldi honetan zerbait garrantzitsua lor dezakegula pentsatzen has gaitzke», esan zuen larunbatean Rayoko jokalaria batek. *Enfin* (II)...